

# BESTELAKO XEDAPENAK

## LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

### 1889

*AGINDUA, 2023ko martxoaren 20koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, «Zaldibarko Zabortegiko larrialdi-obren As Built proiektua» exekutatzeko ukitzen dituen ondasun eta eskubideak okupatzeko desjabetze-espeditentean jasotako ondasun eta eskubideen zerrenda behin betiko onartzeko.*

Aztertu da «Zaldibarko Zabortegiko larrialdi-obren As Built proiektua» delakoari dagokion espeditentea.

#### AURREKARIAK

1.– 2020ko otsailaren 6an, Verter Recycling 2002, S.L. enpresak ustiatzen duen hondakin arrisku gabeetarako zabortegian, lurra egin ondoren, sutea piztu zen, eta, zoritxarrez, bi lagun bertan galdu, eta ingurumen-ondorio larriak gertatu ziren.

Gertaeren larritasuna kontuan hartuta, Ingurumeneko sailburuordearen 2020ko otsailaren 10eko Ebazpenaren bidez, urgentziatzeko neurriak ezarri ziren, Verter Recycling 2002, S.L. enpresaren titulartasuneko hondakin ez-arriskutsuen zabortegian izandako luizari dagokionez. Izan ere, zabortegiaren lerradurak eragindako egoera urgentziatzekoa eta salbuespenezkoa da, eta ebazpen horrek, besteak beste, administrazio publikoari berari agintzen dizkio atzeratu ezin diren zenbait jarduketa, gertakariaren lehen faseei aurre egiteko.

Egun berean, 2020ko otsailaren 10ean, Ingurumeneko sailburuordearen ebazpena sinatu zen eta zabortegia ustiatzen duen enpresari jakinarazi zitzaion. Ebazpen horren bidez, gertaturiko lerradurari buruzko zenbait jarduketa urgentziaz egitea agindu zen.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2020ko otsailaren 13ko Aginduaren bidez, Zaldibarko udal-mugarrean zabortegian izandako lerradurari buruzko urgentziatzeko neurriak hartzea erabaki zen. Agindu horretan, urgentziatzeko honako neurri hauek hartzea ebazten da:

- Neurri batzuk, euri-ur gehiagorik ez dadin joan irrist egindako eta irrist egin gabeko hondakin-masara, ez zuzenean euri modura ez kanpoko arroetatik.
- Irristatutako masa egonkortzearekin lotutako neurriak.
- Segurtasunarekin, desagertutako pertsonen erreskatearekin edo bestelakoekin lotutako beste helburu batzuetara bideratutako neurri gehigarriak.
- Lixibiatuak biltzeko, garraiatzeko eta kudeatzeko neurriak.
- Zabortegiko gasaren errekuntza eta sortutako sua kontrolatzeko eta eteteko neurriak.
- Obrako sarbideak, plataformak eta instalazioak irekitzeko buruzko neurriak, urgentziatzeko ekintzak gauzatzeko.
- Urgentziatzeko ekintzei buruzko dokumentuen, ingeniariaren, planen eta proiektuen diseinuarekin, kalkuluarekin eta garapenarekin lotutako neurriak.

– Hondakinak kudeatzeari lotutako neurriak, baldin eta –iragazgaiztutako segurtasun-biltegiaren kanpoaldera irristatu direlako edo lekuz aldatu behar direlako– instalazioko isurketa-ontzia bera ez den beste kokaleku edo instalazio batzuetara eraman behar badira.

2020ko otsailaren 13ko Agindu horren bigarren ebazpen-zatiak ezartzen du hartu beharreko neurri zehatz guztiak eta EAEko Administrazio Orokorren jarduketak iraungo duen denbora izango direla gertakariaren ondoriozko hasierako larrialdi-fasea konpontzeko eta ingurumeneko kalte edo afekzio berriak sortzeko arriskua minimizatzen behar diren gutxienekoak eta behar-beharrezkoak direnak, eta Administrazioak zuzenean gauzatuko dituela Verter Recycling 2002, S.L enpresaren kontura, modu proportzionalen eta zabortegeko operadorearentzat kostu txikiagoko beste aukerarik ez dagoen neurrian.

Ondoren, hasierako larrialdi-fasea gainditu ondoren, zabortegea ustiatzen duen enpresak – lehengoratzeko egiteko betebeharra eta erantzukizuna duen aldetik– bere gain hartuko du, oso-osorik, prebentzio-neurriak, kalte berriak saihesteko eta gauzak berrezarri edo aurreko egoerara itzultzeko neurriak gauzatzea, baldin eta bere aldetik proposatu eta EAEko ingurumen-administrazioeko organo eskudunek teknikoki baliozkotzen badituzte.

Gobernu Kontseiluaren martxoaren 3ko 35/2020 Dekretuaren bidez, Zaldibarko udal-mugartean (Bizkaia) dagoen zabortegearen ingurunean hondakinen segurtasun-biltegiak urgentziaz eraikitzea onartu zen, dekretu horren I. eranskin gisa erantsi den deskribapen-proiektuarekin bat etorritik.

Martxoaren 3ko 35/2020 Dekretuaren laugarren atalak honako hau jasotzen du: Zabortegearen inguruko hondakinen segurtasun-biltegiak urgentziaz gauzatzeko proiektuak eragindako ondasun eta eskubideak onura publikokotzat eta gizarte-interesekotzat deklaratzeko, eta urgentziazkoa dela Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek horiek aldi baterako okupatzeko. Dekretu honen II. eranskinean dago horien planoa.

2020ko martxoaren 30ean, jabeen jakinarazi zitzaizkien Gobernu Kontseiluaren 35/2020 Dekretua onartu zela.

Ingurumeneko sailburuordearen 2020ko martxoaren 4ko Ebazpenaren bidez, Verter Recycling 2002, S.L. enpresari, Zaldibarko zabortegearen titularra den aldetik, ingurumen-erantzukizuna eskatzeko ERM-2020-001 espedientea hasia erabaki zen.

Administrazio-egintza horretan, otsailaren 10ean, otsailaren 13an eta martxoaren 3an Verter Recycling 2002, S.L. enpresari ezarritako behin-behineko neurriak berretsi ziren (Gobernu Kontseiluaren 35/2020 Dekretua), Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legearen 23. eta 44. artikuluetan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 2ko 39/2015 Legearen 56. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Ekainaren 30eko 83/2020 Dekretuaren bidez, baietsi egin zen Verter Recycling 2002, S.L. enpresak 35/2020 Dekretuaren aurka jarritako aukerako berraztertze-errekurtsoa. Horren bidez, haren I. eranskina aldatu zen, eta, hala, hondakinen lehenengo biltegia handitzeko proposamena txertatu zen, operadoreak planteatutakoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek lehenago onartutako bigarren segurtasun-biltegiaren ordez.

Ekainaren 30eko 83/2020 Dekretuaren bigarren atalak ezarri zuen martxoaren 3ko 35/2020 Dekretuaren lehenengo, bigarren, hirugarren, laugarren eta bosgarren ebazpenetako xedapenak hondakinen lehenengo segurtasun-biltegia (DS1) handitzeko proiektura hedatzea.

2020ko uztailaren 22an, jabeen jakinarazi zitzaizkien Gobernu Kontseiluaren 83/2020 Dekretua onartu zela.

Ingurumen Sailburuordetzaren 2021eko urtarrilaren 20ko Ebazpenaren bidez, Zaldibarko hondakin ez-arriskutsuen zabortegian 2020ko otsailaren 6an gertatutako onoriozko ingurumen-kalteen izaera adierazgarria zehaztu zen, Verter Recycling 2002, S.L. enpresari esleitu zitzaion, hondakin ez-arriskutsuen zabortegiaren titular gisa, ingurumen-erantzukizuna, ERM-2020-001 eskakizun-espeditoareen baitan, eta kalteak konpontzeko proiektua aurkezteko agindu zitzaion.

Bosgarren atalak Verter Recycling 2002, S.L. enpresari agintzen dio Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen aurreikuspenak bete ditzan, baldin eta prebentzio- edo saiheste-neurriak hartzeko haren titulartasunekoak ez diren lursailak okupatu behar badira.

Ondorioz, zabortegia ustiatzen duen Verter Recycling 2002, S.L. enpresak, lehengoratzeko-ekintzen behartua eta arduraduna den aldetik, 2021eko otsailaren 16an, nahitaezko desjabetze-prozedura hasteko eta desjabetzearen onuraduntzat hartzeko eskaera aurkeztuzat jotzeko eskatu zuen. Eskaerarekin batera, «Balorazio-txostena: desjabetzearen balio justuaren kalkulua. Lehenengo segurtasun-biltegia handitzeko proiektua (DS1). Eitzaga 48250 Zaldibar auzoa (Bizkaia)» dokumentua aurkeztu zen (erref.: BI-01452-20-2W). Bertan, zerrenda zehatza eta banakatua dago; horren bidez, desjabetu beharrekotzat jotzen dituen alderdi guztiak, materiala eta juridikoa, ondusunak eta eskubideak deskribatzen dira.

Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordearen 2021eko apirilaren 9ko Ebazpenaren bidez, interesdunei entzuteko izapidea egin ondoren, Ondoan, S. Coop. erakundeak egindako «Ingurumen-kalteak konpontzeko proiektua» dokumentua onartu zen. Verter Recycling 2002, S.L. enpresak aurkeztu zuen dokumentu hori 2021eko otsailaren 19an, instalazioaren operadorea den aldetik, Zaldibarko udalerrian dagoen hondakin ez-arriskutsuen zabortegian izandako lerradurarengatik konpondu behar diren ingurumen-kalteak eragindako erantzukizunaren ondoriozko betebeharrei erantzuteko. Ondoren sute bat eragin zuen zabortegiko gertakari horrek.

Aipatutako 2021eko apirilaren 9ko Ebazpenean jasotakoaren arabera, konkurtsoan dagoen Verter Recycling 2002, S.L. enpresak ONDOAN S, COOP erakundeak egindako ingurumen-kalteak konpontzeko proiektuan jasotako jarduketak egin behar ditu, bertan jasotako epeetan. Horrela, gainera, Ondoan, S. Coop. erakundeak egindako dokumentuan jasotako neurrien gauzatzeak bat etorri behar du dokumentu horretan planteatutako gaiekin, baita Ebazpenaren bigarren atalean jasotako baldintza eta betekizunekin ere.

Aipatutako 2021eko apirilaren 9ko Ebazpenean, konkurtsoan dagoen Verter Recycling 2002, S.L. enpresari berriro ematen zaio agindua, ebazpen bidez onartutako prebentziozko edo kalte berriak saihesteko neurriak hartzeko eta kalteak konpontzeko, bere titulartasunekoak ez diren lursailak okupatu behar badira, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen aurreikuspenak bete ditzan, 2021eko urtarrilaren 20ko Ebazpenean jasotako baldintzetan.

2021eko apirilaren 9ko Ebazpenak amaiera ematen dio 2020ko martxoaren 4ko Ebazpenaren bidez hasitako ingurumen-erantzukizuna eskatzeko prozedurari, Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legean eta hura garatzeko araudian xedatutakoaren arabera.

2021eko apirilaren 9ko Ebazpen horren aurka gora jotzeko zenbait errekurso jaso dira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailean, bai Verter Recycling 2002, S.L. enpresak eta Zaldibarko Udalak jarritakoak, bai prozeduran interesa duten beste alderdi batzuek jarritakoak. Gora jotzeko errekurso horiek organo eskudunak ebatzi ditu; beraz, 2021eko apirilaren 9ko Ebazpena irmo bihurtu da administrazio-bidean.

2021eko irailaren 17ko Aginduaren bidez, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuak erabaki zuen 2020ko otsailaren 13ko Aginduaren bidez erabakitako urgentziatzko neurriak amaitzea. Horiek Zaldibarko udal-mugaratean dagoen hondakin ez-arriskutsuen zaborte-gian izandako lerradurari buruzkoak dira eta ingurumen-erantzukizuna eskatzeko ERM-2020-001 espedientearen baitan daude.

2021eko azaroaren 25ean, Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordearen idatzi bati sarrera eman zitzaion. Horren bidez, Zaldibarko zaborte-gian lerradura gertatu ondoren hartutako jarduketek eragindako partzelak nahitaez desjabetzeko prozedurei hasiera emateko agintzen zaio Sail honi. Desjabetze hori konkurtsoan dagoen Verter Recycling 2002, S.L. enpresaren aldekoa da, eta, gainera, egindako jarduketan As Built proiektuari, enpresak aurkeztutako tasazio-txostena erantsi zaio. Txosten horretan, eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda eta enpresak desjabetze-prozedura honen kostuei aurre egiteko kreditu nahikoa duela adierazten duen konpromisoa jasotzen dira.

2.– Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko irailaren 8ko Aginduaren bidez, desjabetze-espedienteari hasiera ematea eta «Zaldibarko Zaborte-giko larrialdi-obren As Built proiektuak» eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean jartzea erabaki zen.

3.– Jendaurrean ikusgai egon zen aldian, interesdun batzuek alegazioak aurkeztu zituzten, eta beren finen afekzioak doitzeko beharra adierazi zuten, aldeak zeudelako benetan okupatutako azaleren eta jendaurrean jarritako ondasun eta eskubideen zerrendan adierazitako afekzioen artean.

Ingurumenaren Jasangarritasuneko Sailburuordetzari helarazi zitzaion, «Zaldibarko Zaborte-giko larrialdi-obren As Built proiektuak» eragindako azalerei buruzko alegazioen berri eman zezan, eta 2022ko azaroaren 11n, txostena jaso zen Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritzan, Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidalitako eskaerari erantzunez.

Sailburuordetza horretatik jasotako erantzuna ikusita, eta «Zaldibarko Zaborte-giko larrialdi-obren As Built proiektuak» eragindako azalaren neurketa berriak eginda, Bizkaiko katastro eguneratuaren arabera, eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda egin da, eta jendaurrean jarritako ondasun eta eskubideen zerrendako akatsak zuzendu dira. Horren guztiaren berri eman zaie titularrei.

4.– Jendaurrean jartzeko fasea amaituta, alegazio guztiek banakako erantzuna jaso dute, eta, alegazioak ikusita eta hirugarren atalean xedatutakoaren arabera, «Zaldibarko zaborte-giko larrialdi-obren As Built proiektuak» eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda egin da.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legearen xedea operadoreek ingurumen-kalteak prebenitu, saihestu eta konpontzeko duten erantzukizuna arautzea da, Konstituzioaren 45. artikularekin, prebentzio printzipioekin eta «kutsatzen duenak ordaindu egiten du» delakoarekin bat.

Horrela, 9. artikulua, operadoreen erantzukizunari dagokionez, xedatzen du lege horretan jasotako jarduera ekonomiko edo profesionalen operadoreak behartuta daudela ingurumen-kalteak prebenitzeko, saihesteko eta konpontzeko neurriak hartzera eta exekutatzera, eta neurri horien kostuak ordaintzera, horien zenbatekoa edozein dela ere, horien erantzuleak direnean.

Verter Recycling 2002, S.L. enpresak 2021eko otsailaren 19an aurkeztutako eta Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak 2021eko apirilaren 9ko Ebazpenaren bidez onartutako konponketa-proiektuak, ingurumen-erantzukizuna eskatzeko prozeduran, kalteak konpontzeko neurri gisa aurreikusten du, besteak beste, iragazgaiztu gabeko eremuetan utzitako hondakin guztiak kentzea eta zaborteziaren inguruan eraikitako segurtasun-biltegietan induskatutako hondakinak kudeatzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak gauzatu ditu aipatutako segurtasun-biltegiak, konkurtsoan dagoen Verter Recycling 2002, S.L. enpresaren kontura egindako ingurumen-kalteak prebenitu, saihestu eta konpontzeko jardueren baitan; beraz, «Zaldibarko Zaborteziako larrialdi-obren As Built proiektua» delakoan jasotzen dira.

Zaborteziaren inguruan eraikitako segurtasun-biltegiek titulartasun pribatuko ondasunak eta eskubideak hartzen dituzte, eta konkurtsoan dagoen Verter Recycling 2002, S.L. enpresaren alde desjabetu behar dira, Aurrekarietan azaldu den bezala.

Bigarrena.– Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen Lehenengo Xedapen Gehigarriak onura publikoko eta gizarte-intereseko deklaritzen du, nahitaezko desjabetzeari buruzko legeriaren ondorioetarako, hondakinak biltegitartzeko, balorizatze eta ezabatze instalazioak ezartzea edo handitzea.

Hirugarrena.– 35/2020 Dekretua, martxoaren 3koa, zeinaren bidez onesten baita Zaldibar udalerrian (Bizkaia) dagoen zaborteziaren ingurunean hondakinen segurtasun-biltegiak urgentziaz eraikitzea, onura publikokoa eta interes sozialekoa dela deklaritzen du, eta premiazkoa dela zaborteziaren inguruan hondakinen segurtasun-biltegiak presaz gauzatzeko proiektuak eraginako ondasun eta eskubideak aldi baterako okupatzea.

Laugarrena.– Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen Erregelamendua onartzen duen 1957ko apirilaren 26ko Dekretuaren 5. artikuluan eta Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 17. artikuluan xedatutakoaren arabera, konkurtsoan dagoen Verter Recycling 2002, S.L. enpresak Onuradun izaera hartuko du.

Bosgarrena.– Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 17. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, nahitaezkoa da jendaurrean jartzea desjabetze-prozedurak eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda.

Seigarrena.– Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 19. artikulua eta bere Araudiaren 18. artikulua ezartzen dutenez, edozein pertsonak eman ahal izango ditu argitaratutako zerrendako akatsak zuzentzeko behar diren datuak.

Zazpigarrena.– 1954ko abenduaren 16ko Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 20. artikulua eta lege horren Erregelamenduko dagozkion artikuluek ezartzen dutenez, jendaurreko informazioan agertzen direnek egindako alegazioak ikusita, okupatzeko beharrari buruzko ebazpena emango da, eta ebazpenean zehatz-mehatz deskribatuko dira desjabetzeak eragiten dituen ondasun eta eskubideak.

Aztertuta aipatutako lege-aginduak, horiekin bat datozenak eta aplikatzekoak diren gainerako arauak, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– «Zaldibarko Zaborteziako larrialdi-obren As Built proiektua» gauzatzeak eragindako ondasun eta eskubideak okupatzeko nahitaezko desjabetze-espeditentak eragindako

2023ko apirilaren 20a, osteguna

ondasun eta eskubideen zerrenda behin betiko onartzea. Zerrenda hori eranskinean zehazten da, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 20. artikuluan ezarritakoaren arabera eta ondorioetarako.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, probintzian zabalkunderik handiena duen egunkarietako batean eta udaletxeko iragarki-oholean argitaratzea, eta interesdunei banan-banan jakinaraztea. Hori guztia Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 21. artikuluan 18. artikuluari buruz xedatutakoaren arabera.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuari, hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 20a.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburua,  
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

2023ko apirilaren 20a, osteguna

## ERANSKINA

Bizkaiko Zaldibarko zabortegiko larrialdi-obren As Built proiektua											
Finka	Jabearen izena	Eragindako azalerak (m <sup>2</sup> )				Katastroko datuak			Eragindako ondasunaren aprobetxamendua		
		Aldi baterako okupazioa	Akueduktu-zortasuna	Bide-zortasuna	Behin betiko desjabetzea	Lur-eremua	Lurzatia	Azpi-lurzatia			
35	Emeteria Urresti Arrietaren oinordekoak			176,00			6	35		Hazkunde ertaineko hostozabala	
64	Inocencia Apoita Gazteaburu				7,52		6	64	C	Hondakindegia	
71	Esther Olaechea Arriaga eta beste batzuk		674,49		3.993,45		6	71		Haritz amerikarra	
96	Juana Aguirreamalloa Calzacorta				13.143,54		6	96		Radiata pinua	
100	Juana Aguirreamalloa Calzacorta	5.136,91	149,57		4.042,16		6	100	E	Larrea	
103	Felix Gorrochategui Retolaza Maria Jesus Ines Arrondo Suquia				23.759,69		6	103	A, B, C	Radiata pinua, larrea	
108	Bizkaiko Foru Aldundia			156,00			6	108		Hazkunde ertaineko hostozabala	
129	Juana Aguirreamalloa Calzacorta	797,86					6	129		Sastrakadia	
139	Hrdros. Emeteria Urresti Arrieta			162,00			6	139		Hazkunde ertaineko hostozabala	
197	Bizkaiko Foru Aldundia	487,32					6	197		Autopista	